

2025 PROIEKTU DEIALDIA: SORKUNTZA-DOKUMENTALA

Akitania Berria eskualdearekin hitzartu 2025-2027ko kontratuaren kariatara, Kanaldude telebistak, 2025an, sorkuntza-dokumentalarentzat proiektu deialdi bat proposatzen du.

Proiektu-deialdiaren bururatzeari: 2025eko apirilak 10

Txostenak telebista katean aztertuak izanen dira, mundu profesionaletik datozen irakurleekin osatu hautaketa-batzordean. **2025an, Kanaldude engaiatzen da 2 sorkuntza dokumental aurre-erostea 12000€/orduko diru ekarpenarekin eta beharrez industria ekarpen batekin (proiektuaren beharren arabera zehaztekoa).** Proiektu eramaileei azkarki aholkatzen zaie hautagarritasun irizpideak kontutan hartzea.

PROIEKTUEN HAUTAKETA

Telebista kateko ordezkariak eta mundu profesionaletik datozen irakurleek hautaketa-batzorde bat osatuko dute. Proiektuen alde bateko hautaketa 2025eko maiatza bukaeran berantenez egingen da.

HAUTAGARRITASUN IRIZPIDEAK

MOTA: sorkuntza-dokumentala.

HAUTAGAIK: Proiektuek gutenez ondoko irizpide bat bete behar dute*:

~ Proiektua eramaten duen ekoizpen-egitura Akitania Berria eskualdeko lurraldean finkatua izan behar da eta nagusiki ikus-entzun edo zinema ekoizten du (APE 5911 A edo C kodea duten sozietate edo elkarteak);

~ Proiektua eramaten duen autore edo zuzendariak bere bizitegi nagusia Akitania Berria eskualdeko lurraldean du;

2025 PROIEKTU DEIALDIA: SORKUNTZA-DOKUMENTALA

~ Proiektuak harreman azkarra du Akitania Berriarekin (eta Euskal Herriarekin bereziki): filmaren gaia, pertsonaiak edo filmaketa edo/eta postprodukzio denbora parte handi bat eskualdean gauzatua.

**Proiektua Frantziar estatu kanpokoak bada, Frantzian finkatua dagoen koproduktorea izatea beharrezkoa izango da.*

GAIK: Bilatutako gaiak ondoko eremuetan kokatuko dira; Gizarte kontemporaneoak, Arteak, Kultura, Historia (Euskal Herriko historia).

IRAUPENA: Libre

HIZKUNTZA: Kanaldude euskara hutsezko telebista da. Hedatzeko fitxategiek euskaraz izan behar dute. Filmaren jatorrizko hizkuntza ez bada euskara, proiektu eramaileak azaldu beharko du euskarazko bertsioarentzat aukeratu opzioa (azpigituluak, bikoizketa). Euskarazko bertsioaren egiteko gastuak produkzioaren aurrekontuan sartzekoak dira.

BESTE IRIZPIDEAK: Irakurketa-batzordeak ondoko irizpideei kasu egingen die:

~ Proiektuak kalitatezkoak izatea: proposatu gaien egokitasuna telebistaren nortasunari begira, tratamendua berezi a izatea, sorkuntza mailan anbiziozko idazketa izatea.

~ Euroeskualdeko koprodukzioa: EAErekin edota Nafarroarekin koprodukzioan eraman proiektuari atentzio berezia emanen zaie.

~ Produkzio eta banaketa estrategia.

~ 2027an hedatzeko prest izatea.

~ Proiektuaren kariatara euskarazko gaitasun artistikoei edota teknikoei dei egitea edo horretarako formatzea.

~ Proiektuek CNC eta Akitania Berria eskualdeko diru-laguntzen irizpideei erantzutea (laguntza automatikoak edo selektiboak).

PROIEKTUEN AZTERKETA

Sorkuntza-dokumentalei dedikatu diru-laguntzak galdegiteko eta muntaketa finantziario baten perspektiban, txostenak frantsesez idatziak izatea galdetua da.

Proiektuak 2025eko apirilaren 10a arte igor daitezke, e-postaz, fitxategi bakarrean (PDF formatuan, gehienez 10 Mo) helbide honetara: deialdiak@kanaldude.eus

Proiektuen hautagarritasuna egiaztatu ondoan eskuratze-agiri bat igorriko zaie proiektu-eramaileei, proiektua errezibitu den egunetik goiti aste bat barne.

Emaitzak 2025eko maiatzaren bukaeran entregatuko dira.

Txostenean ondoko elementuak agertu beharko dira:

~ Fitxa tekniko bat autore, zuzendari, produktore eta koproduktoreen deitura helbideekin; produkzioaren plangintzarekin; filmaren ezaugarri teknikoekin (iraupena, formatua...); filmaketa eta postprodukzio lekuekin; talde artistiko eta teknikoaren zerrendarekin,

~ Filmaren laburpena,

~ Autorearen edo zuzendariaren xede nota,

~ Produktorearen xede nota,

~ Sinopsi garatua edo gidoia,

~ Zuzendaritza nota bat filmaren tratamendua zehazteko,

~ Aurrekontu zehatza,

~ Finantzamendu-plana, bildu diren finantzamenduak zehaztuz

~ Autoreen eta film-egileen CVa,

~ Proiektu-eramaile den produkzio sozietatearen edo elkartearen aurkezpena,

~ Autorearen eta produktorearen artean izenpetu eskubideen lagatze kontratuaren kopia bat.

Kontaktua:

Loïc Legrand
+335 24 34 50 14
loic@kanaldude.eus
